

# ORTUGINTZA

## EKOIZPEN EKOLOGIKORA EGOKITZEKO BIDE-ORRIA

*Zure uztak ekoizpen ekologikoaren eskakizunak bete ahal izateko gida*



**Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura  
Ekologikoaren Kontseilua**

Finantzatua:



---

# AURKIBIDEA

- [Inoiz galdetu al diozu zure buruari eredu konbentzionalak baliozkoa izaten jarraituko duen 10 urte barru?..... 2](#)
- [Zertarako balioko dizu bide-orri honek?..... 4](#)
- [Por si eres de los que piensa “dudo que lo ecológico esté mejor” ..... 5](#)
- [Zertan ezberdintzen da ekoizpen ekologikoa orain arte egin duzuetik..... 6](#)
  - [Bilakaera..... 6](#)
  - [Maneiuia ..... 6](#)
  - [Ongarriketa ..... 7](#)
  - [Hazi eta landareak..... 7](#)
  - [Izurri eta gaixotasunen kudeaketa..... 8](#)
  - [Kutsadura gurutzatua..... 8](#)
  - [Garbiketa eta desinfekzioa..... 9](#)
  - [Erregistroak..... 9](#)
- [Zein da ziurtapen prozesuaren kostua..... 10](#)
- [Ekologikoan egoteagatik ere badaude laguntzak ..... 11](#)
- [Alta eskatzetik ziurtagiriraino, pausuz pausu..... 12](#)

---

## INOIZ GALDETU AL DIOZU ZURE BURUARI...

### *EREDU KONBENTZIONALAK BALIOZKOA IZATEN JARRAITUKO OTE DUEN 10 URTE BARRU?*

Jakingo duzunez, NPBren ordainketa gehigarriak ingurumenerako onuragarriak diren praktikak konpentsatzeko sortuak izan ziren. Ordainketa gehigarri horien helburua da ekoizleek aparteko sari bat jasotzea merkatuak ordaintzen ez dituen -eta baserritarrek beraien egunerokotasunean egiten dituzten-zereginengatik. Izan ere, erosleak produktuagatik ordaintzen du, baina ez du ordaintzen lurra, fauna edota lursailen ertzetako landaredia zaintzeko nekazariak egiten duzuen lanagatik, edota erleek elikagaien ekoizpenean zein basa-landarediaren mantentzean egiten duten lan eskergagatik. Hala ere, kontsumitzaileek astebururo dute aukera baserritarrek “doan” zaindutako landa eremuaz gozatzeko.

2050era arte jarraitu beharreko ildoak zehazten dituen “**Itun Berde**”-ak argiki erakusten du ingurumenarekin abegikorragoa den nekazaritza-eredu baten sustapena ez dela moda iragankor bat, epe luzerako estrategiak dituen plan bat baizik. ["Baseritik mahaira"](#) da estrategia horietako bat. Helburua da egun elikagaiak ekoizteko dugun sistema eraldatzea, iraunkortasun-irizpideak betetzen dituen sistema batean bihurtuz. Beste batzuen artean, erabilitako nekazaritza-azaleraren % 25 ekoizpen ekologikora bideratzea du helburu.

Hori guztia, jakina, [NPB berrian](#) islatzen da: Oinarrizko Laguntzek ingurumen- eta klima-baldintzak dituzte, eta diru-horniduraren %40 hartzen dute; Eko-erregimeneak ingurumenerako onuragarriak diren nekazaritza-praktika batzuk biltzen dituzte, eta zuzeneko laguntzen %25 izan behar dutela ezarrita dago; Landa Garapenerako Neurrietan, aldiz, diru-horniduraren %35 ingurumen arloko neurrietara bideratu behar direla ezarrita dago. Finean, dirua ekoizpen iraunkorrera joaten ari da. Eta, nork jaso ditzake laguntza horiek guztiak burua gehiegi hautsi gabe? Ba... Ekologikoan ziurtatuta daudenak. Ingurumen-neurri horiek betetzen direlako ekoizpen ekologikoaren eredian. Ez da aparteko ezer egin behar.

Baina gida honen helburua ez da ekoizpen ekologikoa egiteagatik eskuratu daitezkeen laguntzez informatzea. Ez baitira laguntzak izango epe ertain-luzean sektorea bizirik mantenduko dutenak. Azken urteetan ekoizpen konbentzionalean ematen ari den joerak erakusten du, laguntzak laguntza, geroz eta zailagoa dela ekoizpena mantentzeko beharrezkoak diren horniduren prezio-gorakadak jasatea. Intsumoek ia %30 egin zuten gora 2022an, benetako astakeria urte bakar batean. Eta ez dira jaitsiko. Beste era batean esanda: 2022an, beraien jardunetik euro bat lortzeko, nekazariak [0,55 euro gastatu behar izan zituzten intsumotan](#) ekoizpena mantendu ahal izateko. Horri gehitu behar zaizkio horniduren gastuak, aholkularitzarena...

---

Bien bitartean, nekazarien errenta, ekoizleek poltsikoratzen duten dirua, alegia, mende hasieran zena baino %21 gutxiago da. Nola da posible, garestiago salduta ere, irabazia txikiagoa izatea? Nora doa lanaren errentagarritasuna?

Ekoizpen ekologikoaren teknikak inplementatzen ari dira, eredu hau mende erdi baino gehiagoko garapena duen errealitate bat da. Hala, jakin badakigu lur, intsumo eta makineria gutxiagorekin, errentagarritasun handiagoa lortzen dela. Are gehiago, ekologikoan, gutxienez, prezioak egonkorrak dira eta zerorrek negoziatzen dituzu.

### **ZERTARAKO BALIOKO DIZU BIDEORRI HONEK?**

Ikusten ari zara joera dela ekologikorantz eraldaketa progresiboa egitea. Ekoizle batzuek argi ikusten dute, eta hala ere zalantzak dituzte. Honen arrazoia, askotan, informazio gabezia da: zaila ikusten dute, benetan zertan ez badakite ere. Are gehiago, askok uste dute ez dutela lortuko. Baina ziurtagiria lortzea urratsez urrats egiten den zerbait da. Gauza gutxi batzuk aldatzea da kontua, batez ere "beti bezala egiteko" ohitura aldatzea. Tradizionala ez baita beti onena. Lehengotik gauza onekin geratu beharko duzu, eta hain ona ez dena hobetu.

Noski, asko praktikatu beharko duzu. Eta ondo ari ote zaren zalantzak izanda ere, aurrera egin. Trantsizio-urte batzuk beharko dituzu ekoizpen onak lortzeko, zure ustiatégian eta funtzionatzeko moduan aldaketak egin eta moldatzen zaren arte. Hori dena prozesuaren barnean dago. Baina ez du zertan zaila izan behar, gida honekin jakin dezakezu zein pieza erabili eta nola jarri, dena doitzeko.

---

## "EZ DUT USTE EKOLOGIKOA HOBEAGOA DENIK" PENTSATZEN DUEN HORIETAKOA BAZARA

Esango nuke gida hau irakurtzen ari bazara ez dela jakin-minagatik bakarrik. Ziur aski, jakitun izango zara gauzak egiten ari ziren modua ez dela jasangarria ingurumenerako, ezta zure poltsikorako ere.

Esan gabe doa ekoizle ekologikoak ez direla ekoizle konbentzionalen talde lehiakidea: talde berdineko partaideak dira. Finean, ekoizpen ekologikoan garatu den jakintza, hein handi batean, eredu konbentzionalen egindako ikerketetan oinarritzen da. Izan ere, ikusten zen ohiko praktika batzuek ingurumen-ondorio kaltegarriak zituztela, eta ez zirela iraunkorrak denboran. Oraindik asko dago ikertzeko. Ez gara ezagutzaren % 100era iritsi, baina badugu eredu iraunkorretarako trantsizioa hasteko oinarri nahikoa, ustategien biziraupena arriskuan jarri gabe:

- Badakigu herbiziden erabilerak eragin negatiboak dauzkala lurlean, bakterio populazioen ugartzea eragiten dutelako, onddoen populazioen kaltetan eta, honen ondorioz, belarren presentzia areagotzen da.
- Gainazaleko labore eta belarrak kontrolatzeko labore fisikoekin, eta onddoen prebalentzia duten medeagai organikoak gehituta, belar arrotzen karga murrizten da eta haiek baino azkarrago garatzen diren labore indartsuagoak lortzen dira.
- Kaltzioaren eta magnesioaren arteko erlazio egokia mantenduz, landareen nitrogeno-beharrak nabarmen murrizten dira. Horrek, lurlean mikroorganismo kopuru egokia izatearekin batera, ongarri kopuru handiak emateko beharra kentzen du.

Finean, nahiz eta oraindik ekoizpen-prozesu berriak sistematizatzea eta partekatzea falta den, eta gidaliburu espezifikoko garatzeko beharra dagoen, aurrerapenak ematen ari dira. Emaitzak berehalakoak ez badira ere (bai lurrak eta bai nekazariak egokitzapen epe bat behar baitute), esanguratsuak dira. Adibidez, lurraren zikloak errespetatzen dituzten sistemak abian jartzea, materia organiko konpostatua emanez:

- konpostarekin emandako mikroorganismoek lurlean alde zurretik zeuden mineralen absortzioan laguntzen dute, horrela, laboreek beren beharrak beteta dituzte ekarpen gehigarririk egin beharrik gabe. Beharrezko makro eta mikronutriente guztiak eskuragarri dituen landare batek behar bezala egiten du fotosintesia. Honek hostoetan Brix gradu gehiago izatea ekartzen du, eta

---

jakina da 12° Brix-etik gorako landare osasuntsuak izurrite eta gaixotasunekiko erresistenteagoak direla.

- Maneiu on batekin, jorrocketaren eta tratamendu fitosanitarioen zati handi bat aurrezten duzu.

## **ZERTAN EZBERDINTZEN DA EKOIZPEN EKOLOGIKOA ORAIN ARTE EGIN DUZUNETIK**

Batzuetan, errealtatearekin bat ez datozen espektatibak ditugu. Batzuek uste dute ekoizpen ekologikoa produktu batzuk beste batzuegatik aldatzea besterik ez dela, eta kito. Baina hori ez da ekoizpen ekologikoa. Badira, halaber, pausoa eman arte urteak itxaron zituzten etxaldeak, pentsatzen zutelako mila aldaketa egin beharko zituztela eta, azkenean, ongarrri kimikoa konpostarengatik aldatu besterik ez zuten egin behar izan. Hori bai, zure ekoizpena hidroponikoa bada ez dago bilakaera egiteko aukerarik, ez baita bateragarria ekoizpen ekologikoarekin. Lurrean ekoizteko beste aukera batzuk topatu beharko zenituzke.

Jarraian, ekoizpen ekologikoaren araudia betetzeko alderdi nagusiak laburbilduko ditugu. Edonola ere, kontuan izan: naturarekiko errespetu handia duen eta araudian ezarritako guztia betetzen duen ekoizpen-metodo bat jarraitzen baduzu ere, zure ekoizpena “ekologikoa” izan dadin eta merkatuan zure produktuak “ekologiko” aipamenarekin saldu ahal izateko, ziurtapen-prozesu baten sartu beharko zara.

### **BILAKAERA**

- Ortugintzara bideratutako lursailek 2 urteko bilakaera-epea pasa beharko dute ziurtapena lortu aurretik. Denbora-tarte horretan, maneiak ekologikoa izan behar du, nahiz eta oraindik ezingo duzun zure produktuak zigilu ekologikoarekin merkaturatu.
  - Lursailen konbertsio epea alta eskaera aurkezten duzunean hasten da.
  - Lursailen batean onartuta ez dagoen produkturen bat erabiltzen baduzu, lursail horrek berriz ere 2 urteko bilakaera epea igaro beharko du.

### **MANEIUA**

- Lurrean egiten diren lanek biodibertsitatea eta materia organikoa zaindu behar dituzte, eta lurra trinkotzea eta higatzea saihestu behar dute. Hori dela eta, ez da komeni lurreko maila ezberdinak irauli eta nahastuko dituzten lan sakonik egitea, esaterako, goldearekin egiten direnak. Alternatiba gisa, nahastu gabe lurra harrotzen duten lan bertikalak lehenesten dira (subsolutua).
- Debekatuta dago herbizidak erabiltzea. Belarrak kontrolatzeko, laboreen txandakatzea, bitarteko mekanikoak, akoltxatuak eta ongarrri berdeak txandakatuko dira.

- 
- Urtez urteko laboreen txandakatzea, zikloan lekariak (izan daitezke ekoizpenerako zein estalki gisa) edota ongarri berdeak txertatuz derrigorrezkoa da.
  - Posible da ekoizpen ekologikoa eta konbentzionala bateratzea ustiategi berean, baina ezin da ekoizpen paralelorik egin, hau da, eredu batean eta bestean lantzen diren barietateak oso era argi eta errazean bereizteko modukoak izan behar dute, edo urteko sasoi ezberdinetan landatu.

### **ONGARRIKETA**

- Lurzoruaren emankortasuna eta jarduera biologikoa honela handituko dira:
  - Laboreen urte anitzeko txandakatzea, zikloan lekadunak (laborantzarako edo estalki gisa) eta ongarri berdeak sartuz.
  - Simaurra edo mindak aplikatuz, urtean 170 kg nitrogeno hektareako gainditu gabe. Materia organiko hori ustiategi ekologikoetatik etorri behar da, eta konpostatuta egon behar du. Simaur ekologikorik ez badago, maneiu estentsiboa duten ganadutegi konbentzionaletako simaurra aplikatu ahal izango da.
  - Materia organikoa aplikatzea, hala nola laboreen hondarrak, koberterak edo ongarri berdeak.
- Landareen nutrizio-beharrizanak ezin badira neurri hauekin asetu, [\(UE\) 2021/1165 araudiko II. Eranskinak](#) jasotzen dituen ongarri eta gaiak erabili daitezke.
- Konpostean, landarez nahiz mikroorganismoaz egindako prestakinak eta prestakin biodinamikoak erabili ahal izango dira.
- Ongarri nitrogenatu mineralak EZ DAUDE BAIMENDUTA.

### **HAZI ETA LANDAREAK**

- Erabiltzen diren hazi eta landareak ekologikoak izan behar dute.
- Zerorrek berrerabiltzeko haziak ekoizten badituzu, ekoizpen ekologikoari buruzko araudiaren arabera ekoitzi behar dira, eta ezin dira tratatu. Eta jakina, royalty-a ordaindu ez baduzu, ez daitezela Babestutako Barietateak izan. Berrerabiltzea araututa dago, [hemen duzu informazio gehiago](#).

- 
- Salbuespen modura, hazi ez ekologikoak erabili ahal izango dituzu (betiere uzta ondorengo tratamendurik jaso ez dutenak) hurrengo kasuetan:
    - Behar duzun barietatea ez badago [Hazi ekologikoen datu-basean inskribatuta](#).
    - Hornitzaileek ezin badute hazia ereintzarako garaiz hornitu, baldin eta denbora nahikoarekin agindu duzula frogatzen baduzu.
    - Ikerketarako, eskala txikiko saiakuntzetarako, barietateak kontserbatzeko edo berrikuntzarako bada.

3 kasu ezohiko hauetan, [baimena](#) eskatu beharko duzu eta Kontseiluaren partetik onespena jaso arte itxaron, ereintza egin aurretik. Baimena ereintza bakarrarentzat balekoa da.

### **IZURRI ETA GAIXOTASUNEN KUDEAKETA**

- Izurri, gaixotasun eta belarren kontrola prebentzioan oinarrituko da, hurrengo jardueren bitartez:
  - Etsai naturalen sustapena eta/edo erabilera (heskaiak, ezpondak, gordeleku-landareak...)
  - Espezie, barietate eta material heterogeneoak edo egokituak aukeratzeari lehentasuna ematea.
  - Laboreen txandakatzea
  - metodo mekaniko eta fisikoen erabilera, eta biofumigazioa
  - biosolarizazioaren tankerako prozesu termikoak.
- Landareak babestu ezin direnean edota bizirik irauteko mehatxuak daudenean, [2021/1165 araudiko I. Eranskinean](#) jasota dauden produktu eta substantziak erabili ahal izango dira.
- Produktu horiek aplikatu izanaren erregistro bat eraman behar da, honako hauek zehaztuz: arrazoa (prebentiboa, sendagarria); kontrolatu beharreko izurria edo gaixotasuna; produktuaren izena eta substantzia aktiboak; aplikazio-data/k; zein lursailetan eta zein laboreri.

### **KUTSADURA GURUTZATUA**

- Alboko lursailek tratamendu konbentzionalak jasotzen badituzte, ezinbestekoa da kutsadura gurutzatua saihesteko neurriak hartzea. Adibidez, heskaiak landatzea, hesi artifizialak jartzea, balizko kutsadura-iturritik hurbil dagoen azalera-zerrenda ez biltzea edo merkatu konbentzionalera bideratzea...



---

## **GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA**

- Desinfektatzeko eta garbitzeko erabiltzen diren produktuak ere ekoizpen ekologikoaren araudian baimendutakoak izan behar dute. Erregistratu egin behar da: produktuaren izena; substantzia aktiboak; aplikazio-data eta –lekua.

## **ERREGISTROAK**

- Zure jardueraren erregistroak eraman beharko dituzu, landa-koaderno behar bezala beteta, jasotako uzta saldu izanaren ziurtagiriak gordeta, erabilitako intsumoak erosi izanaren egiaztagiriak, edota abeltzainekin egindako akordioen bitartez jasotako konpostaren agiria...

---

## ZEIN DA ZIURTAPEN-PROZESUAREN KOSTUA

Euskadin kontrol erakunde publikoa daukagu, horregatik, kostua zati batean diruz lagunduta dago, bai ziurtapenari dagokionez eta baita sustapen eta komunikazio ekintzei dagokienez. Beste zatia Euskadiko Eragile Ekologikoen Erroldan izena emanda dauden norbanako eta enpresek sustengatzen dute. Alegia, urtea bukatzen denean, eragile bakoitzari dagokion kuota kobratuko zaio berak aukeratutako kontu korrontetik.

Urteroko gutxieneko finkoa 90€ da, honi inskribatutako hektarea kopuruaren arabera kalkulatzen den kopuru aldagarria gehitzen zaio. Jarraian, erreferentziazko adibide batzuk:

- Aire libreko 1 ha baratzerentzat, kuota finkoari 80€ gehitu beharko litzaizkioke, hortaz, orotara 170 €/urtean izango litzateke kuota.
- Negutegiko 1500 m<sup>2</sup> inskribatuta, 40€ gehitu beharko lirateke, urteko kuota 130 €-tan geratuz .

Izena eman berri dutenentzat, lehendabiziko kuotari %50eko kenkaria ezartzen zaio.

---

## EKOLOGIKOAN EGOTEAGATIK ERE BADAUDE LAGUNTZAK

Bai, badira laguntza gehigarri batzuk ekoizpen ekologikorako. Baina benetan, ez dadila hau izan hori egitera bultzatuko zaituen faktorea. Izenak berak dio: "Laguntzak" dira, beren eginkizuna da hain beharrezkoa den trantsizio horretan laguntzea. Eta ingurumena, paisaia eta biodibertsitatea mantentzeko egiten duzun lanaren kostuak ordaintzen laguntzeko. Konpentsazioak dira, beraz, ez zenituzke diru-sarreratzat hartu behar.

Erabakia hartzen baduzu, kontuak egin dituzulako izan dadila. Ekologikoan ekoiztea gutxiago kostatzen zaizula ikusten duzulako, eta produktua garestiago saldu dezakezulako. Egin zure kalkuluak, eta erabaki.

2023tik aurrera, Landa Garapenerako Neurriak ere NPBan bilduta egongo dira. Hiru talde handi izango dira. Esteka honetan, [NPB berriari buruzko laburpen-dokumentu bat duzu](#). Laguntza bananduetan, ekoizpenarekiko independenteak diren eta baldintzazkotasan indartua duten laguntzetan alegia, eko-erregimenetara (klima eta ingurumena) atxikitu ahal izango zara. Eta Landa Garapenerako Neurrietan, honako laguntza hauek jaso ahal izango dituzu: Ekoizpen ekologikoaren konpentsazioa ingurumen- eta klima-konpromisoengatik edota Kalitate-erregimenetan parte hartzeagatik.

Edonola izanda, laguntza hauetatik egokituko litzaizukena jakin ahal izateko, informazio pertsonalizatua ezinbestekoa da. Zer dagokizun eta zer baldintza dauden jakiteko, hurbildu zaitetz zure Eskualdeko Nekazaritza Bulegora.

Badago eragin esanguratsua duen laguntza bat: Ekoizpen ekologiko ziurtatura trantsizioa egiteko laguntza. Honen barrua, badira aholkularitza kontratatzeke lerroak, 1.500 € artekoak eta % 100ean diruz lagunduak. Laguntza honek badu ere trantsizioaren bideragarritasuna egiaztatzeke azterlanak egiteko lerro bat, baita landa-bisitak antolatzeke beste bat, beren jardunbide egokiak partekatu nahi dituzten ekoizle erreferenteak ezagutu ahal izateko...

Azkenik, aipatu Eusko Jaurlaritzaren Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak laguntzak ematen dituela Kalitate-erregimenetan aurreneko aldiz parte hartzeagatik. ENEEK-Ekolurratik tramitazioan laguntasuna eskaintzen zaie diru-laguntza hauek jasotzeko baldintzak betetzen dituztenei.

---

## ALTA ESKATZETIK ZIURTAGIRIRAINO, PAUSUZ PAUSU

Ziurtapena berme sistema bat da kontsumitzailearentzat, non erakunde inpartzial batek bermatzen duen ekoizpena araudian ezarrita dauden baldintzen arabera egiten dela. Euskadin, ziurtapena publikoa da eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEEK-Ekolurra) egiten du. Bere kontrola Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak gainbegiratzen du, berau baita Agintaritza Eskuduna.

Eskaera-prozesua oso erraza da. Gida honen prestaketarako eragileekin egin ziren elkarrizketetan guztiek baieztatu zuten prozesua ez dela batere zaila, eta lagunduak izan zirela uneoro. Zailena da ulertzea zein den izapidetan lehenengo eta zein datorren ondoren... baina horretarako daukazu hau esku artean.

### 1. INFORMAZIOA, DIAGNOSTIKOA ETA INSKRIPZIOA

Izan diagnostiko bat eskatzeko zein, oso argi baduzu, Euskadiko Eragile Ekologikoen Erroldan alta hartzeko, Kontseiluarekin harremanetan jar zaitezke [sustatu@ekolurra.eus](mailto:sustatu@ekolurra.eus) posta elektronikoan edota 946 271 594 telefonora deituta. Kontseiluko ikuskatzaile bat zurekin harremanetan jarriko da bisitarako data finkatzeko.

Diagnostiko batekin hastea erabaki baduzu, bertan adieraziko zaizu zure jarduera ekologikoan ziurtatzeko moduan dagoen edota, hala balitz, zeintzuk aldaketa egin beharko zenituzkeen araudi ekologikoa betetzeko.

Zure deiaren arrazoia izena ematea bada, ikuskatzailearen bisita jasotzen duzunean izen-emate eskaera beteko duzu, baita ziurtapen akordioa eta jardueraren memoria deskribatzailea. Horrez gain, ikuskatzaileak ziurtapenaren xehetasunak azalduko dizkizu, baita jarraipen bisitetan aztertzen diren puntuak zein gorde beharko dituzun erregistroak ere. Zure alta gauzatzeko beharrezkoak diren gainontzeko izapideak Kontseiluko teknikariek konprobatuko dituzte, zuk ez duzu horretaz arduratu beharko.

### 2. ERROLDAN INSKRIBATZEA ETA HASIERAKO BISITA

Behin dokumentazioa gainbegiraturata eta dena ondo dagoela ziurtaturata, Euskadiko Eragile Ekologikoen Erroldan inskribaturata egongo zara, eta zenbaki bat egokituko zaizu. Zenbaki horrek identifikatu eta ordezkaturako zaitu ziurtapen ekologikoarekin harremana duen guztiarekin. [Ekolurraren webguneko](#) bilatzailean ikusgarritasuna izango duzu ere.

---

Momentu honetatik aurrera hasten da ere ziurtapen prozesua. Hau da, ekoizpen ekologikoaren arautegia betetzen duzula ebaluatzen hasten da. Izan ere, lehenengo urte horretan hasierako bisita jasoko duzu, non aztertuko den zein neurritan betetzen ari zaren arautegia:

- Memorian adierazitakoaren arabera jarduten zarela
- Intsumoak, lehengaiak eta ekoizpen-prozesuak ekoizpen ekologikoaren arauak betetzen dituztela (intsumo-erosketen fakturak aztertuko dira)
- Egiten duzuna erregistratzen duzula zure laboreen koadernoan
- Neurriak hartzen dituzula baimenduta ez dauden produktuekin kutsadura ekiditeko.

Debekatutako substantziarik erabiltzen ez duzula egiaztatzeko, laborategian analizatzeko laginak jaso daitezke.

#### **BILAKAERA EPEA**

*Bilakaera epeak lurra eta zu zeu manei-aldaketara egokitzeko balio du; aldi berean, aurreko praktiken hondakinak ezabatzen dira, araudi ekologikoarekin bat datozen ekoizpen-prozesu berriak ezartzen dira, edo ezagutza berriak eskuratzen dira.*

*Baratzezaintzan 2 urte pasa beharko dira alta gauzatu zenuenetik. NPB laguntzak eskatzen badituzu, kontuan izan behar duzu ere otsaila eta maiatza artean tramitatu ohi direla: ekoizpen ekologikoa egiteagatik laguntzak eskatzen badituzu, ezinbesteko baldintza da Eragileen Erroldan inskribatuta egotea.*

### **3. ERABAKIA**

Hasierako auditoretzatik sortu dokumentazio guztia Ziurtapen Batzordeak aztertuko du. Batzorde honek egiaztatzen du bai egiten dituzun prozesuak, bai erantsitako dokumentazioa egokiak direla, arautegia betetzen dela, eta horretan oinarrituta erabakia hartzen da. Balorazioa positiboa bada, Zuzendariaren onespena jasotzeko pasako da.

### **4. URTEKO JARRAIPENA ETA ZIURTAGIRIEN JAULKIPENA**

Adostasun ziurtagiriak urtebeteko balioa dauka, beraz, ezinbestekoa da aldiro-aldiro zure ekoizpenaren gaineko konfiantza mantendu eta berritzea. Horretarako, Kontseilua informatuta mantendu beharra daukazu eta zure jardueraren jarraipena egitea ahalbidetu, urteroko auditoretza bat izatea onartuz.

---

Horrezaz gain, auditoretza gehigarriak zein jakinarazpenik gabeko ezohiko auditoretzak jaso zenitzake, Kontseilutik egindako arriskuen balorazioaren arabera.

Auditoretzak aldekoak badira, Zuzendariak ziurtagiria berrituko du. Ez adostasunik badaude, hauek zuzendu beharra dago berritze prozesuarekin jarraituko bada. Ez adostasunaren larritasunaren arabera, gerta liteke bilakaera-epe berri bat finkatzea, ekoizpena deskalifikatzea edota, kasu larrienetan, ziurtagiria kentzea.

➤ **“Bilakaeran” ziurtagiria**

Bilakaerako lehen urtea igarota eta gorabeherarik gabeko jarraipen auditoretza pasata, zure ekoizpena Europako araudiarekin bat datorrela adierazten duen ziurtagiria ematen da. Lehenengo urte honetan, zure ziurtagiria "Bilakaeran" izango da. Oraindik ezin izango dituzu zure produktuak ekologiko gisa merkaturatu, baina aukera izango duzu “ekoizpen ekologikora bilakaeran” izendapenarekin saltzeko. Ezin izango duzu oraindik eurohostoaren zigilua erabili etiketan, ezta Ekologikoa/Biologikoa/Organikoa aipamenak ere.

➤ **Ziurtagiri “Ekologikoa”**

Bigarren urteko jarraipen-bisitaren ondoren, dena zuzena izan bada, ziurtagiri ekologikoa emango da, inskribatuta dituzun produktuetan Ekologikoa/Biologikoa/Organikoa aipamena erabiltzeko baimena ematen dizuna. Saltzen dituzun produktuak etiketatuta badaude, ziurtatu behar duzu etiketan ekoizpen ekologikoaren aipamenak zuzenak direla. Kontseiluko teknikariek egindako kontsulta batek argituko dizkizu izan ditzakezun zalantzak.